

KOSTUEN EGITURA:

Atal honetan negozio eredu bat martxan jartzeak ekartzen dituen kostu guztiak deskribatzen dira.

Balioa sortu eta entregatzeak, bezeroekin harremana mantentzea edo diru-sarrerak sortzeak kostua dauka. Behin funtsezko jarduerak, baliabideak eta elkarketak definitu ondoren, nahiko erraza da hauek kalkulatzeko. Hala ere, kontuan izan behar da, negozio eredu batzuek besteek baino kostu gehiago dituztela. Gure kasuan adibidez, argi dago proiektu honek kostu handia izango duela.

Negozio eredu guztietan kostuak minimizatzea lortu behar da. Hala ere, kostu baxuko egiturak garrantzitsuagoak dira negozio eredu batzuetan, besteetan baino, eta beraz, bi motetan sailkatu daitezke kostuen egitura: Kostuen arabera eta balioaren arabera.

Gure kasuan, gure proiektua kostuen arabera oinarrituko da; izan ere, gure helburua gastuak ahalik eta gehien murriztea izango da. . Ikuspuntu honekin, kostu egitura ahalik eta txikiena edukitzea lortu nahi dugu. Ikuspuntu honekin, kostu egitura ahalik eta txikiena edukitzea lortu nahi dugu.

Era berean, argi utzi beharrekoa da kostuak mota ezberdinekoak izan daitezkeela; kostu finkoak, kostu aldakorak, eskala ekonomikoak edo hedapen-ekonomikoak:

Kostu finkoak: kostu mota hauek ez dira aldatzen ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen arabera. Honen adibide, soldatak, alokairuak eta fabrikazioko instalakuntzak dira. INEI enpresaren kostu finkoak langileen soldatak, fabrikazioko instalakuntzak eta beste enpresa bati erositako produktuak izango dira.

Kostu aldakorak: ekoiztutako ondasun eta zerbitzu kopuruaren arabera proportzionalki aldatzen diren kostuak dira. Negozio batzuk, musika festibalak antolatzen dituztenek adibidez, kostu aldakor asko izan ohi dituzte. Gure kasuan, ez ditugu kostu aldakorrik izango.



Eskala ekonomiak: INEI enpresak ez du eskala ekonomikorik izango; izan ere, gure enpresak eskala handia erosten ez duenez, ez genuke batz besteko kostua murriztea lortuko.

Hedapen-ekonomiak: etorkizunean hedapen-ekonomikoa sortu nahiko dugu. Honek hegazkin gehiago erostea suposatuko du, beti kostu hauek errentagarri izango badira.

